

/ Nabarmentzekoak

- > Hungariako eta Kazakhstango taldeak, Itxartu taldearekin, Folklore Nazioarteko Jaialdian (3. or.)
- > Ertibil Bizkaiaren 42. edizioak obra berritzaileekin liluratu du Punta Begoñan (3. or.)
- > Horacio Echevarrietak bizia hartuko du bisita antzeztuetan Punta Begoñan (4. or.)



Saninazioak. Hilaren 27an, 12:00etan, pregoia eta txupinazoa, eta 12:30ean, koadrilen jaitsiera San Nikolasetik. Ekitaldiak, uztailaren 31ra arte.

**A-
GENDA**

Abesbatzen kontzertua. Hilaren 20an, 18:00etan, Algortako Berrerosearen parrokian, Koru Zuzendaritzako 42. akademiaren amaierako kontzertua. Sarrera doan.

Paellen Nazioarteko Lehiaketaren ospakizunaren eragina gutxitzeko neurriak datorren ostegunean, hilak 25

Datorren uztailaren 25ean Aixerrrotako zelaietan Paellen Nazioarteko Lehiaketa ospatuko dela eta, Udalak jarraipena emango dio eragina murrizteko 2017an abian jarritako proiektuari, Itxas Argia elkarteak lehiaketa antolatzen duen eremutik kanpoko gunean segurtasuna eta garbiketa areagotze eta arriskuak murrizte aldera. Udaltzaingoak zaintza- eta kontrol-dispositibo bat ezarri du pinudiaren balizatutako eremuan, pertsonen sartzeari galarazteko eta eremu hori errespetatzeko. Ekitaldiaren aurreko egunetan ere zainduko da esparrua, Ingurumen Sailak baimentzen ez dituen elementuak erabil ez daitezela.

Ertzaintzak eta Udaltzaingoak baterako dispositibo bat garatuko dute, pertsonen segurtasuna modu presentzial, proportzional eta egokian bermatuz. Iaz bezala, Udaltzaingoak karpa bat jarriko du erdigunean, jai-eremuan identifikatzeko modukoa, bertaratze-ko eta informazioa emateko gune azkar eta eraginkor bat eskaintzeko, bertaratuentzako erreferentzia gisa balioko duena, eta langile ibiltariak ere izango ditu. Besteak beste, bidesegurtasunarekin, trafikomozketekin eta delitu-egitateen prebentzioarekin lotutako lanak egingo dira, eta laguntza eta sorospena emango da istripurik izanez gero. Gainera, jai-eremurako sarbideak eta edukiera kontrolatzeko kamerak jarriko dira, haren segurtasuna areagotzeko.

Udaleko arloek areagotu egin dituzte ingurumena zaintzeari, hondakinak biltzeari, segurtasunari, ebakuazio-bideei eta osasun zerbitzuei (anbulantziak, osasun langileak...) lotutako eta suteen kontrako neurriak baita arlo desberdin eta gazteen koadrilen artean ezartzen joan direnak ere.



Ingurunea

2023ko emaitza positiboak ikusita, pinudiaren eta txilardien generako sarbideak hesolen eta zinten bidez balizatu dira, eta eremu naturalekiko errespetua sustatzeko eta zuhaitzak iltzeen, soken, inausketen eta abarren bidez ez kaltetzea eskatzeko kartelak jarri dira; sega-lanak egin dira gune ofizialaren ondoko eremuan, larrialdizerritzauek eta garbiketa-kamioiak sartu ahal izateko bideak irekitze aldera; argi-puntuak, ur-puntuak eta mahukak izango dira; edukiontzien kopurua handituko da; ekitaldiaren egunean hondakin

gaikako bilketa egingo da (jatorrian bereizteko poltsen banaketarekin gune garbietan) eta ekitaldia amaituta eta ondorengo egunetan, ontzien, beiraren, paperaren, organikoaren eta gainerakoen zatikiaren bilketa selektiboa egingo da, antzemandako tresnekin batera, eta bilketa bukatzeko, egurra kenduko da, pilatuz joango dena, eta azkenik, hondakin txikiak.

Bitartekaritza taldea

Arriskuaren prebentzioko goi-mailako teknikari batek eta gizarte-hezitzaile batek osatutako lan talde bat kontratatu da berriro,

esparru ofizialaren pareko festan parte hartzen duten koadrilekin bitartekaritza-lana egin dezan. Lantalde horrek segurtasunaren garrantziaz informatu eta gomendioak emango ditu hurrengo bidez: bide nagusiak eta ebakuaziobideak errespetatzeko, pasatzea eragozten duten eraikuntzak egin gabe; ingurumenarekiko errespetuz; zementua ez erabiltzeko etxolak eraikitzean, eta solairu bakarrekoak izateko; bitartekotza muntatutako egiturak seguruak izateko eta koadrilentzat eta bisitariarentzat arriskutsuak ez izateko; ekitaldiaren egunean bertan izango diren zerbitzuei buruzko informazioaz: indarkeria matxistaren kasuak artatzeko puntu morea, gaueko bus-zerbitzua, ambulanzia-postua eta Udaltzaingoaren postu finkoa.

Uztailaren 10ean egin zen lehen bisita Aixerrrotako zelaietara, gomendioak behar bezala betetzen ari direla bermatzeko, eta ekitaldiaren aurreko egunera arte egingo dira.

GUNE MOREA BEREHALAKO ARRETA ZUZENA ESKAINTZEKO

Udalak Aixerrrotan, gainontzeko udako jai handietan bezala, gune more bat jarriko du, karpa baten azpiko gune seguru eta lasaia, profesionalak artatuta, eraso sexualen biktimei zuzenean eta berehalako arreta eskaintzeko, zaintzan eta bereiritzi eta nahiekiko errespetuan oinarritua. Ertzaintzarekin, Udaltzaingoarekin eta Udalarekin ere koordinatuko da, eskuera dauden zerbitzuei buruzko informazioa eman ahal izateko eta jarduerak, koordinazio eta erantzun publikorako protokoloa aktibatuz. Gainera, gune moretik indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa egingo da. Paellen zerbitzuen ordutegia uztailaren 25ean, 18:00etatik 24:00etara, eta uztailaren 26an, 00:01etik 03:00etara izango da.





UZTAILAK 19 OSTIRALA

Santa Anako jaiak. 17:00h, Txikigune; 19:00h, txupinazoa eta buruhandiak; 20:30h, sardina jana, eta 22:30h, kontzertua: Mambo Express eta Guda Dantza.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Itxartu Taldea (Getxo). Sarrera: 3€ (abonamendua 7€).

UZTAILAK 20 LARUNBATA

Santa Anako jaiak. 10:30h, xake txapelketa; 11:00 eta 17:00h, txikigune; 13:00h, tortilla txapelketa; 14:00h, Mago Blue; 15:30-17:00h, Koadrila txapelketa; 17:00h, mus txapelketa; 18:00h, igela eta txapela txapelketak; 19:30h, zirko eta humorea; 20:30h, saiheski jana; 21:30, bingo musikatua, eta 22:30h, kontzertua: Basati tiak eta DJ Oreinak.

Antzerkia. Getxo Eszena kalean. 18:30ean, Areetako Geltozia plazan, "Ipurbeltz" (euskaraz) Ameztu Antzerkiarekin. Adin guztiak. Dohainik.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Ilosvai Folklore Taldea (Hungaria). Sarrera: 3€

Abesbatzen kontzertua. 18:00etan, Algortako Berreroslearen parrokiari, Koru Zuzendaritzako 42. akademiaren amaierako kontzertua. Antolatzailea: Euskalherriko Abesbatzen Elkarte. Sarrera doan.

Antzeztutako bisita gidatua. "Portu Zaharra bere sustraie-tatik". Irteera 11:00etan Portu Zaharreko arrapalati. Prezioa: 6€ (15 minutu lehenago ordaindu behar da Ereagako Turismo Bulegoan). Informazioa: Turismo Bulegoa, tel. 94 491 08 00

Ingurumen aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Exploratzaile txikiak (3 urtetik aurrera) + Naturaren detektibeak (6 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

UZTAILAK 21 IGANDEA

Santa Anako jaiak. 11:00h, futbol eta saskibaoli txapelketak; 12:00h, txikigune; 13:00h, paella txapelketa; 17:00h, ur guda; 17:30h, aparra; 18:30h, herri kirolak; 19:30ean, sari banaketa; 23:00h, zinea, eta 24:00etan, jai amaiera.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Folklore Konpainia Nazionala Naz (Kazakhstan). Sarrera: 3€

Ingurumen aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Baleen eta Izurdeen Munduko Eguna: itsas ekosistemak arrautza-ontziekin (6 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

rezkoa da alde aurretik izena ematea: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

UZTAILAK 25 OSTEGUNA

LXIX. Nazioarteko Paella Txapelketa. 10:30h, izenematea; 12:00h, txalaparta, aurrekua eta Itxas Argia Dantza Taldearen ikuskizuna; 13:30-14:30h, paelen aurkezpena; 17:30h, sari banaketa, eta 18:30h, erromeria.

Ingurumen aretoa. 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 eta 13:00. Hegaztien koloreak (6 urtetik aurrera). Jarduera autogidatua. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

UZTAILAK 26 OSTIRALA

Santa Anako jaiak. 19:00h, meza Santa Ana egunean; 19:45h, dantzak Berantzagari taldearekin, eta 20:30h, txitxiburduntzi.

UZTAILAK 27 LARUNBATA

Saninazioak. 12:00h, pregoia eta txupinazoa, eta 12:30h, koadrilen jaitsiera San Nikolasetik. 11:00h eta 17:30h, estropadak. 18:00etatik aurrera, adinekoentzako jarduerak J.B.Zabala Eskolan; 20:00h, Jota eta Arin-ari Txapelketa, Kasino plazan, eta ordu horretatik aurrera kontzertuak hainbat gunetan, besteak beste. Egitarau osoa: www.getxo.eus

Antzerkia. Getxo Eszena kalean. 18:30ean, Areetako Geltozikoko plazan, "Bonba bat naiz" Bea Larrañagarekin. Euskaraz. Adin guztiak. Doan.

Antzeztutako bisita gidatua. "Portu Zaharra bere sustraie-tatik". Irteera 11:00etan Portu Zaharreko arrapalati. Prezioa: 6€ (15 minutu lehenago ordaindu behar da Ereagako Turismo Bulegoan). Informazioa: Turismo Bulegoa, tel. 94 491 08 00

Ingurumen aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Eskulan jasangarriak: Loreak arrautza-ontziekin (3 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

UZTAILAK 28 IGANDEA

Saninazioak. Txipiroi lehiaketa, Biotz Alai plazan; 10:00h, graffitiaren erakustaldia Algortako hainbat tokitan; 11:00h, haurrentzako jarduerak; 13:00etan, bertsolariak Kasinoko plazan; 14:00h, paellada herrikoia La Cadena gunean; 17:30h, Telletxen, herri kirolak Gazterdi Txapelketako (12-16 urteko koadrilentzat) eta 18:30ean beste koadrilentzat; 18:30ean, buruhandiak kaleetan zehar eta 20:00etatik aurrera kontzertuak hainbat gunetan, beste jarduera askoren artean. Egitarau osoa: www.getxo.eus

Ingurumen aretoa. 10:30-11:45 eta 12:15-13:30. Itsu-itsuan naturan (gutxienez bi pertsonako taldeentzako jarduerak (8 urtetik aurrera). Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea: www.ingurumenaretoa.getxo.eus

238.056 euro Gizarte Kohesioko entitateentzat

Datorren abuztuaren 12ra arte zabalik egongo da Gizarte Kohesioaren eremuan, udalerriko edo getxotarrentzako jarduerak antolatzen dituzten erakundeentzako dirulaguntzen deialdira eskakizunak aurkezteko epea. Aurten Udalak 238.056 euro banatuko ditu. Lehenengo ildoak, 111.720 euroko gehieneko kredituarekin, asoziazionismoa sustatu eta indartu nahi du, bai eta Gizarte Kohesioaren arloari lotutako erakundearen sare bat egotea bultzatu ere.


Bestalde, bigarren ildoak, 126.336 euroekin, Gizarte Kohesioaren arloko jardueraren eremuetarako interesgarriak diren proiektuak babestu eta sustatu nahi ditu.

Carmen Díaz Gizarte Kohesioeko zinegotziak nabarmendu duenez, "erakunde sozialentzako laguntza indartzen jarraitu nahi dugu, talde profesionalekin eta, batez ere, boluntarioen parte hartzearekin garatzen ari diren proiektuak finantzatzuz. Erakundearen lanak sare komunitario garrantzitsu bat sortzen du".

Erakunde hartzaileak irabazi-asporik gabeko erakunde, elkarte edo fundazioak dira, dagokien erregistroan gutxienez urtebeteko antzinatekin daudenak eta udalerrian Gizarte Kohesioaren eremuan jarduerak egiten dituztenak, proiektua Getxon aurrera eramaten eta/edo hartzaileen artean gutxienez %50 getxotarrak izanda. Eskabideak Administrazio Elektronikoko Bulegoan (www.getxo.eus) aurkeztu beharko dira.

"Sortzera ausartu" bideoak, sormen eta kultura alorra sustatzeko kanpaina

Atrévete a crear-Sortzera ausartu da Ekonomia Sustapeneraren arloak Zerikus: Getxon Sortzen proiektuari finantzatu zion ikus-entzunezko kanpainaren izenburua, Wanted programaren edizioan hautatuta. Proiektuaren helburua da bideoak grabatzearen eta editatzearen bitartez Getxoko sormen- eta kultura-sektorea sustatzea, Udala Getxo Sormen Hub-en bidez sustatzen ari den eremu estrategikoa baita.



jartzen duten grina erakutsiz: VICTOR LANDETA @victorlandeta (<https://labur.eus/6VANF>); MUKA DESIGN LAB @mukalab (<https://labur.eus/RheGY>); JON ASTORQUIZA @elektr.art (<https://labur.eus/scrWZ>); BORJA ARBAIZA @barbaizaprod (<https://labur.eus/wBc4I>); MAITANE SARRALDE (<https://labur.eus/rEq8C>) eta HAIZEA LOPEZ @haizealopezoficial (<https://labur.eus/0EWFt>).

Getxo Enpresa
Bestalde, dagoeneko esku-

ragarri dago Getxo Enpresa elkartearen webgunean udalerriko 15 negozio txiki- ren mikro bideoen kanpaina, merkataritza-jarduera sustatzeko eta bultzatzeko, eta getxotarrak eta bisitariak udalerriko merkataritza bultzatzearen garrantziaz sentsibilizatzeko. Bideoak elkartearen eta Udalaren sare sozialetan ikusi ahal izango dira.

Enpresa-transmisioari laguntzeko programa indartzea

Udaleko Ekonomia Sustatzeko Arloak tokiko enpresen jarraipenaren aldeko apustua egiten du, enpresa transmisioeko programa indartuz. Laguntza-zerbitzu hau negozioa eskualdatu nahi duten Getxoko enpresei eta horiek erosi nahi dituzten ekintzaileei edo enpresei dago zuzenduta. Saltzaileari zein erosleari laguntzea aurreikusen da enpresa-transmisioaren prozesu osoan.

Juanma González Ekonomia Sustapen-Getxolaneko zinegotziak azpimarratu duenez, "programak eskaintzen ditu egoeraren azterketa pertsonalizatua eta prozesuaren prestakuntza, informazioa izapidetza eta informazio-saioei buruz, eta erakundearen babesak eta dauden laguntzak eskuratzea".

Informazio gehiago: <https://labur.eus/Ito4K>



Olaija Tejada, Line Dance munduko txapeldunordea

Patinaje Show Getxo Klubeko Olaija Tejada gazteak zilarrezko domina lortu du, Classics mailan Novicce modalitatean, Bartzelonan ospatu den Lince Dance Munduko Txapelketan. Estatuan egiten den espezialitate horretako lehen mundiala izan da, partaidetza handiarekin, oso maila altuarekin, klubetik nabarmendu dutenez. Azpitxapeldunaren titulua bere dominen zerrendari gehitu behar zaio, besteak beste, iaz Alemaniako kirol dantzako munduko Txapelketan lortutako urrezkoa.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Bassai Comunicación. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Mediapost Gordailu legala: BI-388-87

Komunikazio zinegotzia: Mikel Erkoreka Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Kazakhstango Naz taldeak milaka urteko tradizioarekin eta giza balioekin harmonian dauden kantuak eta dantzak biltzen ditu

Hungariako eta Kazakhstango taldeak, Itxartu taldearekin, Folklore Nazioarteko Jaialdian

Nazioarteko Folklore Jaialdia asteburuan, uztailaren 19tik 21era izango da, 20:00etan, Muxikebarrin, Hungariako eta Kazakhstango taldeen partaidetzarekin, Itxartu taldearekin batera. Hain zuzen ere talde getxotarrak hasiera emango dio jaialdiari ostiralean, hilak 19, euskal kultura tradizionala folkloreaken bidez zabaltzeko eta berreskuratzeko egiten duen lana erakutsiz.

Larunbatean, hilaren 20an, Nagyidako Ilosvai dantza taldearen txanda izango da. 1951n sortuta, bere helburu nagusia Hungariako goi-lurraldeetako dantza folklori-

Santa Anak bere jaiak ospatzen ditu

Ostiralean, uztailak 19, Areetako Santa Ana jaiak hasiko dira 19:00etan, txupinazoaren jaurtiketarekin eta buruhandien desfilearekin. Ondoren, ohiko sardina jana izango da 20:30ean eta kontzertu bat 22:30ean, Mambo Express eta Guda Dantza taldeekin. Larunbatean, hilak 20, eta igandean, hilak 21, auzo jai egitarauaren ohiko jarduerak izango dira, esate baterako, tortilla eta paellen txapelketak eta saihets jana (arlotan gastronomikoan), eta mus, igela eta txapela txapelketak. Ez dira ohiko ur gerra, bitsa jai, herri kirola, koadrilen lehiaketa eta musika faltako.

Jaiak igandean, uztailaren 21ean, amaitu arren, ostiralean, hilak 26, Santa Ana jai egunean meza nagusia izango da 19:00etan, eta ondoren Berantzagi Dantza taldearen saioa eta txitxiburduntzi dastatzeko aukera.

Jardueren egitarau osoa: bigarren orrialdearen agendan.

koaren kultura benetan irudikatzea da.

Bestalde, Naz talde folkloriko nazionalaren saioa igandean, hilak 21, izango da. Bere folkloreak Kazakhstango milaka urteko tradizioarekin eta giza balioekin harmonian dauden kantuak eta musikak biltzen ditu. Saioretan zaldiak inspiratutako kultura baten milaka urteko loturak, kaskoen zarata eta estepetako haizea ikusten dira. Dantzek harmonia handiz konbinatzen dituzte Asia eta Europa zeharkatu zuten zaldizkoen indarra eta poesia, maitasun sentimenduak eta espazio handiko herrialde baten edertasun naturala. Sarreraren prezioa hiru eurokoa da (7 euro abonua erosiz gero).



Elena Moreno Scheredrek "Una isla para esconderse" aurkeztu du

La frontera lleva su nombre lanarekin liluratu ondoren, Elena Moreno Scheredrek *Una isla para esconderse* bere bosgarren eleberria aurkeztu berri du Romoko Kultur Etxean. Getxotarrak ilunabarrean dir-dir egiten duen uharte bateko egia isilen eta ustekabeko topaketen istorioa aurkeztzen digu. Emakumezko protagonista oso indartsuak dituen nobela da, bitxigintzaren artea atzealde historiko gisa duena eta Lanzarote uhartea paisaia gisa duena. Elena Morenok bere estilo literarioari leial jarraitzen dio eleberri honetan, giza emozioak ezinbesteko elementuak izanda, baina kasu honetan, lehen aldiz, thriller elementuak gehitzen ditu.



Inaugurazioa Amaia Aguirre alkatearekin, Leixuri Arrizabalaga Kultura diputatuarekin eta artistekin

Ertibil Bizkaiaren 42. edizioak obra berritzaileekin liluratu du Punta Begoñan

Ertibil Bizkaia Ikusizko Arteen Erakusketa Ibiltaria Punta Begoña Galerietan bisitatu ahal izango da datorren irailaren 2ra arte. Foru Aldundiak antolatutako lehiaketa honetan, lurraldean bizi eta lan egiten duten 18 pertsona sortzaile berriren lanak aurkeztuko dira. 18 lagun horien artean, hiru sarituak dira Leo Burge *Entre murmullos y cabellos* obrarekin (1.a), M. Benito Piriz *Abrazo* lanarekin (2.a) eta Lucía Jayo Altamirano *You'll Never Guess* izenekoarekin.

Artelanez artista bakoitzaren sormena eta adierazpen pertsonala islatzen dute hurrengoekin: instalazioak, olio-, akriliko- edo pastel-pinturak, bideoa, eskultura eta argazkigintza.

Burgek (Londres, 1991) marraz-

kiaren, eskultura salbuetsiaren eta idazketaren arteko elkargunea aztertzen du bere lanetan. Bere lanak erdi amestutako irudiak jasotzen dituzten zortzi marrazki biltzen ditu.

Benito Píriz (Durango, 1992) eskulturan oinarritzen da, piercing-a zulaketa-elementu gisa erabiliz, eta zulatutako gorputzari eta haren estetikari buruz hausnartzen du.

Jayo Altamiranok (Vitoria-Gasteiz, 1999) pintura, marrazkia eta argazkia uztertzen ditu bere obran, galtzak neurri bisualeko unitate gisa ardatz dituen proiektuaren zatia da, eta zalantzan jartzen ditu bere logikak eta irudiari aurre egiteko moduak.

"Gazteak pentsatzen. Gerra eta bakea"

Utopian Getxoko arte eszenikoaren zentroak eta Suitzako Luzernako Vor Alpen Theatrek *Gazteak pentsatzen. Gerra eta bakea* partekatu dute. UN Etxearen eta Getxoko Kultur Etxearen laguntzarekin, bost egunez Luzernako bost gaztek eta bost getxotarrek, 14 eta 17 urte arteko begiradarekin, Gerrak eta Bakeak zer esan nahi duten pentsatu eta jakinarazi zuten. Halabeharrak eraginda, 10 emakume gaztek bizi izan zuten esperientzia hori eta uztailaren 5ean publikoaren aurrean erakutsi zuten, "hunkituta utziz bere mezuagatik eta irudietan agertutako indar plastikoagatik", Utopian zentrotik adierazi dutenez. 10 emakume gazteren begirada.



Ereagak Euskadiko hondartzako lehen aldagela inklusiboa izango du udan

Ereagako pasealekua aukeratu da uda honetan higiean laguntza-premia handiak edo konplexuak dituzten eta laguntzeko bi pertsonaren arteko beharra duten herritarrentzako aldagela inklusiboaren esperientzia pilotu bat jartzeko. Udalak kokatu du, Aldagela Inklusiboak Koordinatzeko Elkartearen (ACCI) laguntzarekin. Euskadin jartzen den bostgarrena da eta lehena hondartza batetik gertu (Estatuko hirugarren hondartza). Uda garaian egingo den proba pilotu bat da, etorkizunean ezartzeko estrategia bat aztertze aldera.

Aldagailua 6 x 2,5 metroko modulu bat da, Ereagan, Lagundutako Bainuaren Zerbitzuaren ondoan kokatuta. Kontzeptu berri bat da, sartzeko arrapalarekin, eta altueran erregula daitekeen ohatila bat, sabaiko garabi bat, dutxako eserleku bat, ostomizatutako pertsonentzako komun bat, eta altueran erregula daitezkeen konketa eta komunontziarekin.

Mota honetako aldagela inklusi-



Eriz Delgado ACCIko zuzendaria; José Antonio Barañano Foru Aldundiko Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendaria; Amaia Aguirre alkatea eta Janire Ocio, Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotzia.



boen helburua pertsona guztien duintasuna eta pribatutasuna errespetatzea da; izan ere, jardueraren pertsonalak egitea, hala nola pixoihalak aldatzea edo beste behar berezi batzuk egitea esperientzia deseroso eta lotsagarria ez izateko ziurtatzea, komun bat era erraz, autonomo eta duinean erabili ahal izateko beharrezkoak diren oinarriko tresnak erraztuz, batzuetan aipatutako ekintzak egiteko lurrian etzanda egin behar izatea ekidituz. "Eskubide-berdintasunean, ekitatean, inklusioan eta irisgarritasunean beste urrats bat ematea da, funtsezko baliabideen beharrak onartzen dituelako, pertsona guztiak instalazio egokietara iritsi daitezkeela ziurtatuz, egoera ez-duinak eta ez-segururak saihestuz", azaldu du Amaia Aguirre alkate getxotarrak moduluaren irekieran.

Eriz Delgado Aldagela Inklusiboak Koordinatzeko Elkarte zuzendariak gaineratu duenez, "aldagailu inklusiboak izateak gaitasunak prebenitzera laguntzen du, higie praktika egokiak errazten baititu, eta, aldi berean, zaintzaileen osasunari mesede egiten dio, beren lanak egiteko ingurune egokiagoa eskaintzen baitie. Horrek karga fisikoa eta emozionala murrizten lagun dezake, arreta eraginkorragoa, iraunkorragoa eta gizatiarragoa emanez".

Proba pilotua hiru hilabetekoa izango da, eta ordutegia 11:00etatik 19:00etara. Sartzeko giltza behar da eta hori Foru Aldundiaren Lagundutako Bainuaren Zerbitzukoiei eskatu beharko diete erabiltzaileek.

Horacio Echevarrietak bizia hartuko du bisita antzeztuetan Punta Begoñan

Punta Begoña Galerietan, urtea amaitu arte, hileko hirugarren igandero bisita antzeztuak izango dira, lehena igande honetan, uztailak 21, izanda. Horacio Echevarrietak berak bizia hartuko du bere ibileren berri emateko eta galerietara hurbiltzen direnei protagonista izan zituen istorio ugariak kontatzeko.

Echevarrieta Bilbon jaio zen 1870. urtean, baina Punta Begoña bere bizi-espazio eta aparteko ibilbi-

de baten oinarri bihurtu zuen. Estatuko historiako enpresaririk garrantzitsu eta Europako garrantzitsuenakotzat jo izan da. Iberdrola, Iberia, Cementos Portland, ontziolak, ontzi-enpresa garrantzitsuak, meatzaritzako negozioak edo petrolio-prospekzioak bezalako enpresak sortu zituen.

Diputatu errepublikar-sozialista izan zen hainbat legegintzalditan, eta Kontzertu Ekonomikoaren alde egiteagatik hiru Foru Aldundien omenaldia jaso zuen.

Madrilgo Gran Via kalea urbanizatu zuen, Bilboko Zabalgunearen zati bat, Bartzelonako Metroaren 2. linea eraiki zuen eta Niagarako transbordadorea sustatu zuen.

Gainera, komunikabideen jabea izan zen, El Liberal kasu, eta aitzindaria irratia Espainiara iristen. Ekintza humanitarioak egin zituen, hala nola Afrikako Gerrako presoek erreskatea, eta "enpresari eskirol" gisa ezagutu zuten meatzarien bizi-baldintzekin izandako konpromisoagatik.

Estatu eta nazioarte mailako azpikoetan murgilduta, munduko itsaspeko aurreratuen garatzeko apustuak eta Erregearen zein Azañako Gobernuaren traizioak krisi ekonomiko handi batean murgildu zuten. Gerran galeriak kon-

fiskatu zizkiten, eta handik urte batzuetara itzuli, baina ez omen zituen berriro zapaldu nahi izan. Uztaileko eta abuztuko bisitak 18:30ean hasiko dira eta sarreraren prezioa 3 eurokoa da.

Informazioa eta inskripzioak: www.puntabegonagetxo.eus.



Echevarrieta Abd-El-Krim Rifeko liderrarekin batera, zeinekin Annualeko Hondamendian erorritako presoek askapena negoziatu zuen



Beste bainu solidario bat Esklerosi Anizkoitzagatik

Busti zaitetz-Mójate ekimeneko ekitaldi nagusia izan zen Ereagako hondartzan, beste uda batez, esklerosi anizkoitza ikusarazteko. Ehunka pertsonak parte hartu zuten Euskadiko hondartzetan eta igerilekuetan, eta Ereagan hainbat agintari (horien artean Amaia Aguirre alkatea), Gurutzetako eta Basurtoko neurologia ekipoak, Euskadiko Esklerosi Anizkoitza Fundazioko kideak, eta gizarte, kulturako eta enpresako esparruetako kideak, besteak beste, elkartu ziren.